



ONDARROAKO UDALA  
Bizkaia

## 2013. URTEKO DIRU-LAGUNTZA DEIALDIA

### BERDINTASUNAREN ALDEKO PROIEKTUETARAKO

#### **Lehenengoa.—Xedea**

Deialdi honen xedea da diru-laguntzak emateko prozedura arautzea, norgehiagoka erregimenean, emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko 2013. urtean egin diren edo egiteko diren jarduerak garatzeko. Baita laguntza eskatu den ekintzarekin lotutako ekipamendua ere edota tresneria erosteko edo egiteko.

#### **Bigarrena.— Onuradunak**

Deialdi honetan diru-laguntzak eskatu ahal izango dituzte egoitza edo jarduketa-eremua Ondarroan duten pertsonak eta irabazi asmorik gabeko elkarte edo erakundeak. Salbuespen gisa, egoitza edo jarduketa-eremua Ondarroan ez izan arren, Udalak interesgarritzat jotzen dituen jarduerak edo proiektuak garatzen dituztenek.

Udalerriko emakume elkarteak edo bestelako elkarteak, baldin eta diru-laguntza ahalbidetuko duen jardueraren helburua emakume eta gizonen berdintasuna bultzatzea bada edota edozein eremutan emakumeen partaidetza bultzatzea bada, eta bereziki, indarrean dagoen Berdintasunerako Udal Planarekin bat datozen jarduerak burutzen dituztenak.

Hurrengo, baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Irabazi-asmorik ez izatea, eta irabazi-asmorik duen erakunderen baten mende ez egotea, ez ekonomikoki, ez erakunde-izaerari dagokionez.

b) Euren estatutuetan beren-beregi agertzea euren helburuen artean berdintasuna sustatzeko proiektuak egitea dagoela, edo, hala badagokio, froga bidez egiaztatzea erakundeak etengabe jarduten duela eremu horretan.

c) Elkarteen kasuan, helbide soziala Ondarroan izatea edo Ondarroa izatea haien jarduera-eremua. Salbuespen gisa, egoitza edo jarduketa-eremua Ondarroan ez izan arren, Udalak interesgarritzat jotzen dituen jarduerak edo proiektuak garatzen dituztenek. Pertsona fisikoa izanez gero, Ondarroako udalerrian erroldatuta egotea. Kasu guztietan, onuradunek Ondarroako udalerrian egindako jarduera azaldu beharko dute.

d) Aurkeztu dituzten proiektuak gauzatu, horien segimendua egin, justifikatu eta balioztatzeko beharrezko gaitasun eta bitarteko nahikoak izatea.



ONDARROAKO UDALA  
Bizkaia

e) Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan diru-laguntzak eskuratzeko ezarritako debekuren batean ere ez egotea.

f) Ondarroako Udalak aurretik emandako diru-laguntzen justifikazioak behar duen moduan eta egunean izatea. Hain zuzen ere, ez zaio erakunde bati diru-laguntzarik emango, baldin eta aurretik jasotako beste udal diru-laguntza bat justifikatu barik badu, edota justifikazio hori egiteko epea amaituta badago, deialdi honetarako eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan.

g) Zuzenbide publikoaren zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak ordainduta izatea.

h) Eskabidea aurkezten duen pertsonak eta erakunde eskatzaileak ez izatea administrazio-zehapenik edo zehapen penalik sexu-diskriminazioa egiteagatik; eta bestetik Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen itzalpean debekurik ezarrita ez izatea.

2. Deialdi honetan parte hartzetik kanpo geratuko dira, beren-beregi, gainerako Herri Administrazioen eta, oro har, finantza-erakundeen mendeko erakunde edo zerbitzuak.

### **Hirugarrena.—Diruz lagun daitezkeen jarduerak**

Emakumeen eta gizonen berdintasuna indartzera zuzendutako jarduerak, diruz lagun daitezkeen proiektutzat joko dira. Hain zuzen, edozein eremutan emakumeen partaidetza bultzatzeko, horiei informazioa edo aholkularitza ematea sustatzen duten jarduerak; eta baita berdintasunaren gaineko ekintzak, kontzientzia hartzea bultzatzen duten jarduerak direnean zein Berdintasunerako udal planarekin bat datozen gainerako ekintzak.

### **Laugarrena.—Diruz lagundu daitezkeen jardueren nolakotasuna**

Diru-laguntzak jaso ahal izateko, honelakoak izan behar dute jarduerak:

a) Irabazi-asmorik ez izatea eta, ondorioz, diru-laguntzak inola ere ezin izango du onurarik sortu diru-laguntza eskatu duen erakundearentzat.

b) Ondarroako udalerrria izango da horren onuradun.

c) Ez daitezela baztertzailerak izan arraza, sexu, erlijio edo iritzi arrazoen ondorioz.

d) Jarduerak finantza-bideragarritasuna izatea. Hartara, erakunde onuradunak bereganatuko du Ondarroako Udalaren diru-laguntzaren bitartez estali ez den kostua, eta horretarako bere baliabideak baliatuko ditu edota finantziazio publiko zein pribatuko beste iturri batzuk.



ONDARROAKO UDALA  
Bizkaia

e) Proiektua gauzatzean, lehentasunez, tokiko enpresek edo erakundeek parte hartzea.

f) Diru-laguntzapeko ekintzen sustapenerako prestatzen diren elementuak, testuak edo dokumentuak euskaraz editatu eta argitaratuko dira; betiere, Udalaren babesa dutela ageri behar da. Horrezaz gain, burutzen den ekintzaren aurkezpena euskaraz egingo da.

### **Bosgarrena.—Diruz lagun daitezkeen gastuak**

Zuzeneko kostuak zein zeharkako kostuak diruz laguntzeko moduko gastuak izango dira. Hori horrela, entitate eskatzaileak horiek bereiztea aukera dezake, eta horren informazioa justifikazioan emango du era honetan:

- a) Kostu zuzenak: diruz lagunduko den jarduerari begira, argi eta garbi, dagozkionak eta jarduerarako behar den ekipamendua zein tresneria erosketei dagozkienak.
- b) Zeharkako kostuak: Diru-laguntza eskatu duen erakundeak jarduerak egin, kontrolatu eta segimendua egiteari lotutako administrazio gastua (telefono deiak) eta mantenu gastuak (hornidurak) izango dira. Kostu horien zenbatekoa ezin izango da proiektuaren zuzeneko kostuen %20 baino gehiagokoa izan, eta jarduera gauzatze hutsa nahikoa izango da justifikatzeko.

### **Seigarrena.—Diru-laguntzen zenbatekoa**

1. Oro har, eta zazpigarren oinarriko 3. atalean xedatutakoa salbuetsita, jardueraren erakunde sustatzaileak eskatutako zenbatekoaren ehuneko ehuneraino jasotzeko eskubidea izango du diru-laguntza gisa.

2. Ondarroako Udalak emango dituen diru-laguntzen zenbatekoak, berak bakarrik zein beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuen laguntza edo bestelako diru-sarrerekin batera, ezin izango du erakunde onuradunak gauzatu beharreko jardueraren kostu osoa gainditu, inola ere ez. Diru-sarrera eta gastuen justifikazioa aztertutakoan diru-sarrerak gastuak baino handiagoak direla ikusten bada, Ondarroako Udalak emandako diru-laguntzari gehiegizko diru-sarreraren zenbatekoa kenduko dio.

3. Oinarri hauen arabera emakida inola ere ez da arrazoitzat aipatuko hurrengo ekitaldietarako aurrekari gisa. Ezin izango da emandako diru-laguntzaren gehikuntzarik edo berrikuspenik eskatu.

4. Erakunde batek nahi beste ekimen aurkezteko aukera izango badu ere, ez zaio inola ere deialdiaren zenbatekoaren %25 baino gehiago esleituko.



### **Zazpigarrena.—Diru-laguntzak emateko araubidea**

1. Oinarri hauetan araututako diru-laguntzak emateko, norgehiagoka araubideari jarraituko zaio.
2. Diru-laguntzak emateari begira, hauxe da norgehiagoka araubidea: hainbat eskabide izango direla aurreikusten denez gero, diru-laguntzak emateko ebazpena hartuko da eskabide horiek erkatuta, prozedura bakar batean. Horrela, bada, 8. atalean zehaztuko diren irizpideen arabera, emango da diru-laguntza; betiere, muga baten barruan, alegia, dagokion aurrekontu-partidan gordailatutako zenbatekoa.
3. Eman beharreko diru-laguntzak portzentaje berean gutxiagotu ahal izango dira guztientzat, diruz lagundu beharreko ekintzen artean beste azken bat sartu ahal izateko; betiere, aurrekontuko gordailuak horren zati bat estaltzeko bakarrik ematen badu.
4. Aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko, Balorazio Batzorde bat eratuko da, eta kide hauek osatuko dute:
  - Lehendakaria: kontseiluburua.
  - Idazkaria: berdintasun teknikaria.
  - Kideak: Bilduko ordezkari (2), EAJ-PNV ordezkari (1), Ondarroako udaleko Idazkaria eta Ondarroako Emakumeen Udal Berdintasun Kontseiluko ordezkari (2)
5. Diru-laguntzak Alkatearen erabakiaren bidez emango dira, berariaz sortutako Balorazio Batzordeak, oinarri hauetan finkatutako prozeduraren haritik, horretarako egingo duen proposamena ikusi eta gero.

### **Zortzigarrena.—Hautatzeko eta balioztatze irizpideak**

Oinarri hauetan araututako diru-laguntzak emateko, ondoren zerrendatuko diren irizpideak eta gehieneko puntuak aplikatuko dira:

- a) Proiektuaren edukia eta helburuak. Udal Berdintasun Planarekin edota berdintasun sailaren egin beharrarekin bat etorritik. Gehienez 30 puntura arte.  
Bereziki hurrengo ardatz hauek baloratuko dira: Hezkidetzaren aldeko jarduerak edota bereziki, gazteei zuzendutakoak; indarkeria matxistaren kontrakoak; emakumeen jabetza sustatzen dituztenak; kontzientzia feminista sustatu eta emakumeen partaidetza aktiboa bultzatzen dituztenak, herrialde ezberdinetako emakumeen elkartrukea bultzatzen dituztenak, emakumeek egindako sormen eta produkzio kulturala zein artistikoa sustatzea edota askatasun zein aniztasun sexualaren aldeko ekimenak.  
Era honetara baloratuko da:
  - Proiektuan zehar aipatutakoaren ardatz bakarra lantzen da: 20 puntu.



- Bi ardatz landuz gero: 30 puntu.
- b) Programaren jarraipena edo egonkortasuna. Gehienez ere 10 puntura arte.
  - 2 urte baino gutxiago: 5 puntu
  - 3-5 urte: 8 puntu.
  - 5 urte baino gehiago: 10 puntu.
- c) Sare lana bultzatzea: beste elkarte edo erakunde batekin lankidetzan aritzea. Gehienez ere 10 puntura arte.
  - Jarduera bakar batean: 8 puntu
  - Bat baino gehiago: 10 puntu
- d) Proiektuaren helburu diren erabiltzaileak eta pertsonen kopurua eta aniztasuna. 10 puntu
  - Zein biztanleriari zuzentzen zaion: gehienez ere 5 puntura arte. Bereziki baloratuko dira sektore estrategikoak, esate baterako, gazteak, kultur ezberdinetako emakumeak eta abar.
  - Erabiltzaile kopuruaren arabera: gehienez ere 5 puntura arte eta era honetara baloratuko da proposatzen den jardueraren arabera: Txikia: 1 Puntu, Ertaina: 3 puntu eta Handia: 5 puntu.
- e) Euskararen erabilera plana. Gehienez ere 10 puntura arte.
  - Diru-laguntza aurreko eta ondorengo tramitazioan: idatzizko eta ahozko harremanak euskaraz izatea, hau da, edozein idatzi, eskaera, programa, proposamen eta abar euskaraz aurkeztea: 4 puntu.
  - Ekintzaren gauzapena euskaraz egitea: 6 puntu
- f) Partaidetza iraunkorra izatea Ondarroako emakumeen berdintasun kontseiluan. 18 puntu.
- g) Emakume elkarte izatea edo talde mistoa bada, gutxienez zuzendaritza postuetan %50ak emakumeak izatea. 10 puntu
- h) Ingurumena babestea eta sustatzea: ipinitako kartel eta euskarri publiziatarioak kentzea, zaborrik ez sortzea edo sortutakoa jasotzea. Gehienez ere 2 puntura arte.

Beharrezkoa izango da gutxienez 40 puntu lortzea eta lortutako puntuen arabera esleituko dira diru-laguntzak hurrengo baremoak jarraituz eta betiere, muga delarik deialdi honi dagokion aurrekontu gordailatutakoaren zenbatekoa.

40-50 puntu.....	eskatutakoaren %60
51-60 puntu.....	eskatutakoaren %70
61-70 puntu.....	eskatutakoaren %80
71-80 puntu.....	eskatutakoaren %90
81 puntutik gora.....	%100

Diru partida nahikorik ez balego, bakoitzari dagokionaren zati proportzionala esleituko litzaioke (kalkulua hiruko erregela bidez).



### **Bederatzigarrena.—Eskabideak eta agiriak aurkezteko modua eta epeak**

1. Eskabideak aurkezten badira, oinarri hauetan azaldutako baldintzak guztiz eta beren-beregi onartu direla ulertuko da.

2. Normalizatutako eskabidea aurkeztuko dute oinarri hauetan ezarritako diru-laguntzak eskuratu nahi dituzten erakundeek, behar bezala beteta eta, nahitaez: jardueraren proiektu xehatua eta ekintza bakoitzaren gaineko informazioa: jardueraren deskribapena, lortu nahi diren helburuak, eta zein biztanle-esparruri zuzentzen zaion azalduz; baita jardueraren aurrekontu xehatua ere, kontzeptuka zehaztuta, aurreikusitako diru-sarrerak eta gastuak adieraziz.

2.1 Horrekin batera, orokorrean eskabide guztiek aurkeztu behar dituzte ondoko agiriak:

a) Eskabidea gauzatzen duen pertsona fisikoaren NAren fotokopia eta, hala badagokio, egiaztagiri bat erakunde eskatzailearen izenean eta ordezkaritzan jardun dezakeela egiaztatzeko.

b) Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiaren eta Foru Ogasunaren ziurtagiriak, erakunde edo pertsona eskatzaileak erakunde horiekin dituen betebeharrak egunean ordainduta dituela adierazteko. Ziurtagiri horiek indarrean egon beharko dira.

Erakunde edo pertsona eskatzailea zuzenbide publikoko zerga-betebeharretatik salbuetsita egonez gero, salbuespen hori egiaztatzen duen agiria aurkeztuko du.

c) Erakunde edo pertsona eskatzailearen aitortpena adierazteko ez dagoela ezein prozeduratan diru-laguntza batengatik edo antzeko laguntzaren batengatik, alegia, itzultzeko prozedura edo zigor-prozeduraren batean ere ez dagoela.

d) Erakunde edo pertsona eskatzailearen aitortpena adierazteko ez duela batere debekurik diru-laguntzak eskuratzeko, diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan ezarritako debekuren batean ere ez.

e) Eskabidea izenpetzen duen pertsonaren zinpeko adierazpena, egiaztatzeko batetik, pertsona horrek eta erakunde eskatzaileak ez dutela administrazio-zehapenik sexu diskriminazioa egiteagatik; eta bestetik, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen itzalpean ez zaiela debekurik ezarri zigorrak irauten duen aldiari deialdi honetan araututako diru-laguntza eskatzeko.



ONDARROAKO UDALA  
Bizkaia

f) Erakunde edo pertsona eskatzaileak egokitzat jotzen dituen beste agiri batzuk, deialdi honen zortzigarren oinarrian ezarritako balorazio-irizpideak aplikatzean kontuan har daitezzen.

g) Erantzukizun zibileko aseguruak, hala badagokio. Balorazio batzordeak aztertuko du zein ekintzari eskatu behar zaion ziurtagiria.

2.2. Aurrekoaz gain, aldaketarik balego ala aurreko urtean diru-laguntzarik jaso ez dutenek ondokoak aurkeztu behar dituzte:

a) Elkartea izanez gero, eskaera egiten duen erakundearen estatutuen fotokopia.

b) Erakunde eskatzailearen identifikazio fiskaleko kodearen fotokopia.

c) Hartzekodun-fitxa, behar bezala beteta, dagokion diru-laguntza ordaintzeko

3. Eskabideak aurkeztuko dira, aipatutako agiri horiekin batera, Ondarroako Udalaren Erregistro Nagusian (Kantoipe 3) edo, bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan –urtarrilaren 13ko 4/1999 Legean idatzita bezala– azaldutako moduren batean.

4. Oinarri hauetan araututako diru-laguntzak eskuratu ahal izateko eskabideak aurkezteko epea HILABETEKOA izango da, BAO-n argitaratzen den eta bihamunetik aurrera zenbatzen hasita.

5. Epez kanpo aurkeztutako eskabideak baztertu egingo dira, proiektuak balioztatu ere egin gabe.

### **Hamargarrena.—Eskabidea zuzentzea eta espedientea artxibatzea**

Eskabideak behar bezala beteta ez badaude edo nahitaezko agiriekin batera aurkeztu ez badira, errekerimendua egingo zaio erakunde eskatzaileari, hamar asteguneko epean huts hori zuzendu edo nahitaezko agiriak aurkez ditzan. Eta ohartaraziko zaio horrela egin ezean, eskabidea bertan behera utzi duela ulertuko dela. Horretarako ebazpena hartu beharko da beren-beregi, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71.1 eta 42.1 artikuluan –urtarrilaren 13ko 4/1999 Legean idatzita bezala– xedatutakoari jarraituz.

### **Hamaikagarrena.—Tramitazioa, ebazpena eta errekurtsioak**

1. Aurkeztutako eskabideak berdintasun sailak tramitatuko ditu.



2. Eskabideak jasotakoan, teknikariak 9. Atalean zehazten denari buruzko txosten bat egingo du Ebaluazio batzordearentzat, eta kide anitzeko Udal organo horrek Alkateari egingo dio diru-laguntza adjudikatzeko proposamena.

Arloko teknikariak egindako txostenean diru-laguntza deialdiak oinarri hauetan ezarritako betekizunak betetzen ote dituen adieraziko da.

Balorazio batzordeak kontseiluaren bilera batean azalduko du bere proposamena, eta kontseiluak oniritzia eman ondoren, Alkateari egingo dio diru-laguntza adjudikatzeko proposamena. Hartara, zortzigarren atalean ezarritako irizpideak aplikatuko ditu eta, horien arabera, eskabide bakoitzari emango dizkio dagozkion puntuak, eta, ondoren, bidezko diren diru-laguntzak emateko proposamena egingo du, norgehiagoka araubideari jarraituz, betiere.

3. Alkateak, txosten hori ikusita, bidezko diren diru-laguntzak ematea edo, hala badagokio, ukatzea ebatziko du. Ebazpenean, gainera, diru-laguntza emateko ezarritako baldintzak adieraziko dira, hala nola, zein epetan gauzatu behar den proiektua, zein modutan eta zein epetan justifikatu behar den proiektua gauzatu izana, zer agiri aurkeztu behar diren eta abar.

4. Diruz lagundutako erakundeak edo pertsonak aldaketaren bat egin behar duela uste badu ekintzaren garapenean, hasieran aurkeztutako egitasmoan aurreikusitakoaren aldean, egin ahal izango du, eta Balorazio Batzordeak baiezkoa eman beharko dio. Hori soilik ekintzaren helburuan aldaketa nabarmena aurreikusten bada.

Diru-laguntza emateko ebazpena ere aldatu edo baliogabetu ahal izango da non eta kontuan hartu diren baldintzetan ezer aldatu baldin bada.

5. Diru-laguntzak ukatu ahal izango dira erakunde edo pertsona eskatzaileak edo jarduerak betetzen ez dituenean oinarri hauetan ezarritako baldintzak. Diru-laguntzak ukatuko dira, halaber, aurrekontuko partidetan dauden kredituak agortzen direnean; horretarako, udal kontu-hartzailearen txostena beharko da aurretiaz.

6. Diru-laguntzak emateko edo ukatzeko ebazpenek emango diote amaiera administrazioaren bideari. Nolanahi ere, interesdunek, nahi izanez gero, ebazpen horien kontra egin dezakete eta berraztertze errekurtsoa aurkeztu Alkateari, edo, bestela, zuzenean egin ahal izango dute horien kontra Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioaren aurrean.

7. Ulertuko da erakunde onuradunek diru-laguntzak onartzen dituztela, baldin eta, hamar asteguneko epean, diru-laguntzak emateko erabakia jakinarazi eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita, ez badiote Ondarroako Udalari idatziz jakinarazten diru-laguntzari uko egiten diotela.





8. Diru-laguntzak emateko espedientearen ebazpena emateko gehieneko epea hiru hilabetekoa izango da, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik aurrera zenbatzen hasita; diru-laguntza eskabideak ez onartutzat joko dira data horretarako beren-beregiko ebazpena egokitzen ez bazaio, udalak daukan eskabideak beren-beregi ebazteko betebeharrari kalterik egin gabe.

### **Hamabigarrena.—Diru-laguntzak ordaintzea**

Onartutako diru-laguntza bi epetan ordaindu ahal izango da (lehenengoa %85, eta ondoren, gainerako %15a).

- Lehenengo %85a ordaintzeko hilabeteko epea izango da, Organo eskudunak diru-laguntza ematea onartzen duenetik hasita. Beti ere, onuradunak aurretik ordaintzeko eskatzen badu.
- Aurreko kasuan, gainerako diru-laguntza jasotzeko (%15a), hurrengo artikuluan zehaztutakoak aurkeztu beharko dira, horretarako jarritako epean, diru-laguntza jasotzeko.

100%a ere hala izango da aurreratu kasu berezietan. Horretarako txosten bat aurkeztu beharko da, behar den moduan azalduta horren beharra eta Balorazio batzordeak erabakiko du.

### **Hamahirugarrena.—Diru-laguntzen justifikazioa**

1. Erakunde onuradunek justifikatu behar dute eskatutako diru-laguntza zertan erabili duten, diruz lagundutako ekitaldia amaitu eta, gehienez, bi hilabeteko epean, eta betiere, hurrengo urteko otsailaren 28a baino lehen.

Honelaxe osatuko da justifikazioa:

a) Ekintzaren bilakaerari buruzko txosten osotu eta normalizatutako ereduaren arabera. Horretan entitate eskatzaileak kostu zuzenak eta zeharkakoak bereizteko eta zehazteko aukera izango du, hala erabakiz gero.

b) Gastuen egiaztagiriak: gastuen jatorrizko agiriak edo konpultsatutako fotokopiak erantsiko dira eta, gutxienez, justifikatuko da onartutako diru-laguntzaren zenbateko bera, zeharkako gastuei dagokien kopurua izan ezik. Edozelan ere, udalak eska dezake beste gastu guztien justifikazioa aurkezteko.

Onartuko dira gastuen egiaztagiri gisa honako hauek:

- Fakturak: baldin eta datu guztiak ageri badira: Faktura zenbakia, fakturaren data, identifikazio osoa bai faktura egin duenarena bai



hartzailearena, faktura egin duenaren eta hartzen duenaren IFZ edota NANA, Jardueraren edo zerbitzuaren deskribapena, BEZa, BEZ-tik salbuetsita egonez gero, horren zergatia azaldu beharko da fakturan

- Autopistako tiketak, garraio publikoko tiketak, aparkalekuetako tiketak, baldin eta aurkeztutako proiektuarekin bat badatoz, eta 150€ baino gutxiagokoak. Aipaturiko tiketak egindako bidaien ingurukoak adierazteko berariazko inprimakiari atxikituko zaizkio. Erregaiari dagokionez, gehienez, kilometroko 0,29 € kontutan hartuko dira.

- Aseguru polizen ordainagiriak.

c) Diruz lagundutako jarduera dela eta, ateratzen diren foiletoen edo publikazioaren ale bana ematea, baita euskarri grafikoan bada ere.

d) Beste administrazio batek edo beste erakunde publiko edo pribatu batek helburu berarekin ezelako diru-laguntzarik eman badu, hori jakinaraztea.

2. Hala eta guztiz ere, Ondarroako Udalak beste agirien bat eskatuz gero, eskatutako justifikazio-agiri horiek guztiak aurkeztu behar dituzte erakunde onuradunek, behar bezala egiaztatzeko diru-laguntzaren zenbatekoa zertan erabili den.

3. Oinarri honetako aurreko atalean aipatutako agiriak aztertzean ikusten bada gehiago izan direla lortutako diru-sarrerak egon diren gastuak baino, errekerimendua egingo zaio erakunde onuradunari, berak Ondarroako Udalari itzul diezaion dagokion diru-kopurua. Halakoa jasotzen bada, diru-sarrera publikotzat hartuko da.

### **Hamalagurra.—Diru-laguntza itzultzea eta zigor-araubidea**

1. Bidezkoa denean, jasotako diru-kopuruak itzultzeko eta berandutze-interesak ordaintzeko eskatuko da, alegia, indarrean dagoen diruaren legezko interesa, diru-laguntza ordaindu zenetik aurrera. Halako kasuetan eskatuko da:

a) Justifikatzeko betebeharra bete ez bada.

b) Beharrezko baldintzak bete gabe eskuratu bada diru-laguntza.

c) Diru-laguntzaren helburua bete ez bada.

d) Oinarri hauetan edo diru-laguntza emateko ebazpenean ezarritako beste baldintzaren bat bete ez bada.

2. Diru-laguntza itzuli beharra Alkatearen erabakiaren bitartez ezarriko da; betiere, erakunde onuradunari entzunaldia eskaini ondoren.



ONDARROAKO UDALA  
Bizkaia

### **Hamabosgarrena.—*Babesa***

Diru-laguntza jaso duen erakundeak edo pertsona onuradunak beren-beregi agerraraziko dute Ondarroako Udalaren babesa jaso dutela diruz lagundutako proiektuak hedatu, zabaldu edo argitaratzeko egiten duten jarduera guztietan. Hartara, argitaratzen diren elementu guztietan Ondarroako Udalaren zein Ondarroako Emakumeen Udal Berdintasun Kontseiluaren babesa agertuko dira.

### **Hamaseigarrena.—*Arau orokorrak***

Oinarri hauetan ezarritako diru-laguntzak arautzeko, oinarri hauetan eta diru-laguntza emateko ebazpenean ezarritako gainerako baldintzak erabiliko dira, bai eta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko aginduak ere, eurak aplikatu behar badira.

### **Hamazazpigarrena.—*Aurrekontuko gordailua***

Oinarri hauetan araututako diru-laguntzak 040/02 3132-1 480.01.00 programaren 2013ko ekitaldiko aurrekontuan dagoen zenbatekoaren pentzura emango dira. Esleipen horren muga 10.000 eurokoa izango da.

**Azken xedapena.-** Euskarazko eta gaztelaniazko testuen artean interpretazio-auzirik sortuko balitz, jatorrizkoa euskaraz idatzitakoa dela kontuan izanik, hura hartuko litzateke aintzat.

Ondarroan, 2013ko martxoaren 15ean.

ALKATEA